

BANDOA

HONDAKIN ORGANIKOAK BATZEKO KANPAINEA

Materia organikoa batzeko zerbitzua laster hasiko da eta 5. Edukiontzia erabiliko dogu.

Informazioa emoteko lau hitzaldi antolatu dira:

Noz: martxoaren 20an

Non: Nestor Basterretxea aretoan

Ordua: arratsaldeko 16:00etan, 17:00etan, 18:00etan eta 19:00etan

Ganera, informazio-puntuak antolatuko dira herriko hainbat lekutan. Leku horreetan, ingurumen hezitzaile talde batek etxean hondakin organikoak zelan bereiztu azalduko dau eta parte hartzeko beharrezko materialak emongo dauz: zulodun ontzia, poltsa konpostagarriak, edukiontzia irekitzeko txartela eta esku-orria.

Informazio puntuak ordutegi eta leku honeetan egongo dira:

	10:30-14:00	16:00-19:30
Martxoak 21	Santamañe kalea	Taraska
Martxoak 22	Anbulatorioa	Kiroldegia
Martxoak 25	Gonzalo Nardiz enparantza	Musika eskola/Kultura Etxea
Martxoak 26	Azokatxoa, Goiko plaza	Artike bidea 1 (plazatxoa)
Martxoak 27	Erribera	Erreten lamera
Martxoak 28	Udal Azoka	Udal Azoka
Martxoak 29	Lamera	Lamera

Info +: 900 866 963 / organikoa@bermeo.eus

Bermeon, 2019ko martxoaren 7an
ALKATEA

Idurre Bideguren Gabantxo

*Gaztelaniazko bandoa ikusgai dago Gizarte eta Kultura Etxeko iragarki tauletan eta www.bermeo.eus web gunean.

El Bando en castellano puede consultarse en los tablonos de la Casa de Cultura y en la página web www.bermeo.eus